

## **GORPUTZ ADIERAZPENA**

Gorputz Adierazpenaren bidez pertsonak berezko lengoaia bat garatzen du, gorputzaren erabilera ikertuz. Gorputz-lengoaia garbi honek ez du alde aurretik pentsaturiko koderik; ahozko adierazpen kontzeptualizatua gainditzen duen komunikatzeko modu bat da, berezko semantika bat duena. Diziiplina honek gorputzetik abiatuz pertsonaren barne-prozesuekin bat egiten du, eta pertsonaren aukera espresiboak keinu-mintzaira kreatibo batera bideratzen ditu.

Helduak haurrari bere ahalmenak garatzeko baliabideak eskaini behar dizkio. Haurraren gaitasun errezeptiboak eta sortzeko sentzibilitatea bultzatuz, helduak haurraren autonomia helburu duen pedagogia bat eraiki behar du.

Jolasa ezinbestekoa da haurraren nortasuna garatzeko; garapen hori berezkotasunean eta sormen libre zein doakoan oinarritu behar da. Beraz, familiak haurraren unibertsoan bete-betean sartzeko gai izan behar du; haurraren hizkuntza ulertu behar du eta haurrak ulertu egin behar dio, irekitako bideetan aurrera egin dezan.

Haurrak ongi pasatzen du bere burua adierazten, eta besteekin elkartzen da; besteekin harremanak ditu, eta talde bateko kide dela sentitzen du. Hezitzaileak erabiltzen dituen materialak (ariketak, jolasak zein sormenerako gaiak) haurraren adierazpenerako euskarriak baino ez dira.